

ABARRATIA pilota batasunak bere urteko biltzarra zuen apirilaren 2an Izturitzeko Denen Etxean.

Usaiko ongi etorriaren ondotik bulegoko kideek nahi izan dituzte lehenik eskertu elkartearen bi-ziarazten duten guziak : Aiherra, Izturitze eta Donoztiriko herriak, diruztatzaile eta laguntzaileak, burrasoak, pilotariak tipi ala handi eta oroz gainetik trebatzaileak urririk ari direnak.

2015ean ABARRATIAK 81 lizentziadun bazauzkan, 61 esku huskan, 12 palan eta 8 trebatzaile eta arduradun. Esku huska, gehienek parte hartu dute xapelgoetan, trinket, ezkerpareta edo plaza laxoan. 2015ean ABARRATIA, xapelgoetako azken haitadetan ardua barne izan da eta zenbait finaletan ere. Orroitzekoa agorri-



Abarratiako mahainburua

laren 30ean 4 pare bazirela finalean Bardozekeo plazan, Union Basque xapelgoaren kondu.

Neskek ere paletan, gomazko pilotarekin, emaitza onak ukan dituzte eta bereziki titulu bat. Diru aldetik urtean zehar egitate batzu antolatu dira : egutegi eta

bixkotx saltze eta beste. Gisa hortan urtea bururatu da sobe-rakin tipi batekin.

Bestalde elkarteko kide, laguntzaile eta burrasoen arteko harremana sustatzeko xedez egin dira erre-geen bixkotxak, Aquatic Landes-erat ateraldia eta erraki gaur.

Administrazio kontseilua ere berritu da, BERAU Didier DURRUTY Beñat, MARTINON Frédéric eta OIHENART Jon sartu baitira 2016an :

- 9-13 urteko neskentzat pala eskola berriz abiatu da. Otsai hontan hasirik, asteazken arratsalde guziz izanen da Aiherrako trinketean Virginie JONQUETekin.

- uztailaren 13an, Aiherrako plazan jokatu dira gazteen finalak esku huska A eta B mailetan
- agorri- undarrean Union Basque xapelgoaren finalak ere Aiherran.

Biltzarra adixkidetasunean bururatu da arduradunek prestatu janari eta edariak gotatuz.

Aiherra

Pilotariak finalean galdu - Milafrangako trinketean ari ziren Pierre Etcheverry eta Peio Iribarne, Artekoen txapelketaren kondu, Union Basque batasunak antolatu finalen karietara, joan den ebiakotzean, 30 eta 14 galdu baldin badute ere, Napurrak batasuneko hobeago batzuen kontra, ez da batere gaizki kein

dean zortzi. Lehen mailan, txapeldun atera dira: Bidart Maiena eta Ichorots Elixabet Hazpandarrak, Xilmun Minjou eta Frederic Darguy bi aihertar gazte-ri nagusiturik. Bigarren mailan, aldiz, hobereenak atera dira Totte Darguy eta Jean-Claude Darquy aihertar gazteak. Antolatzaileak arras pozik agertu dira,



Cédric Noblia arduradunaren ondoan, ezkerreko partean, Peio Iribarne eta Pierre Etcheverry finalistak

hortara heldurik. Egin duzuen sasoin ederrarentzat, goresmenak!

Laborantza lizeoko gazteek antolatu mus zoingehiagoka arrakastatsua - Donapaleuko lizeoko 4 gaztek Aiherrako Denen Etxean antolatu mus zoingehiagokak arrakasta izan du, 74 parek parte hartu baitzuten, joan den igan-

uste baino parte hartzaile gehiago izan baitute. Sari emale amikuzta komertsantak bai eta Mus federazio- neko Jaki Biscay eta Ttotte Elgue eta janari prestatzaile Arrangoitzeko Rau- jaun-andereak eskertzen dituzte ekar- laguntza gatik.

UNION BASQUE : ESKU HUSKA, 3 FINALEN EMAITZAK

ARTEKOAK B	NAPURRAK BORDA Julien ITHURRIA Andoni	40	ABARRATIA ETCHEVERRY Pierre IRIBARNE Peio	14
-------------------	---	----	---	----

Lehen xapel hau Ezpeletarat joan da aisexko. Francis Carricart gazte horien arduraduna pozik zegoen ! Abarratiako ekipan, Etcheverry-k Bellecave ordezkatzzen zuen.

HELDUAK B	NOIZBAIT DUVIGNAU Yann ONDARTS Michel	40	KAPITO HARRI PECHBERTY Antoine HAITZE Maxime	33
------------------	---	----	---	----

Kapito Harriko pilotariak ederki abiatuak ziren 20/8 aitzinean, baina Hazpandarrak, Alexis Inchausperen kontseilu onekin, 21/21 berdindu dute eta partida irabazi.

HELDUAK A	ITSASU LARZABAL Mathieu LESPADE Alexandre	40	SENERE JAUREGUY Amaïur OTHEGUY Philippe	24
------------------	---	----	---	----

Itsasuko ekipa huntan, Larzabal ari zen Zanzberroren ordezk.



Artekoak B : ezkerrean, Abarratia, eskuinean Ezpeletako xapeldunak